


1.BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak bezeroei behar eta nahiak asetzen lagunduko die, batez ere beraien zalantzak argitzeko orduan. Hori dela eta, balio kuantitatiboa eskaintzen diegu, lehiakideek baino prezio baxuagoan lortuko baitituzte zerbitzu berdinak.

Beste alde batetik, balio kualitatiboa ere eskaintzen dugu gure negozio ereduarekin, bezeroen nahiak eta beharrak asetuko ditugulako eta horrela ikasle bizona errazten lagunduko diegulako.

Gure enpresaren berezitasuna aniztasuna eta teknologia berrien erabilera datza.

Easykasik eskaintzen dituen zerbitzu ugariak ez dituzte merkatuan aurkituko, eta aurkituz gero, adibidez, lau edo bost klase partikularretara apuntatuz, alderdi ekonomikoan erabat garestiagoa bihurtuko litzateke. Beste alde batetik, plataforma digital finkatuen kontra egin beharko dugu borroka, Photomath bezalako aplikazioen aurka adibidez. Kasu honetan, enpresa honek matematikako zalantzak bakarrik argitzen ditu. Gureak aldiz, Euskal Herrian ematen diren ikasgai guztienak. Esan beharrik ere ez dago, ikasgai batzuei denbora edo material gehiago eskeiniko diegula, oinarrizko ikasgaiak direla pentsatzen dugulako. Horien artean, euskera, matematikak, gaztelera, ingelesa eta historia aurkituko lirateke.



Gainera, ikasgai horien ulermenerako, tutorialak egongo dira. Tutorial hauetan, guk kontratatutako edo berarekin akordio batera heldutako irakasle batek, azalpenak emango ditu. Azalpen horiek bideo bezala txertatuko dira aplikazioan.

Bideo tutorial hauen bilaketa errazagoa izan dadin, bideo bakoitzak filtro batzuk pasatuko beharko ditu. Hau da, lehenengo eta behin, zer arlo azaltzen ari garen jarriko dugu, adibidez, matematikak. Bigarren iragazkiari dagokionez, arlo horretako zein materia jorratzen ari garen azalduko dugu, adibidez matematiken kasuan, algebra. Azkenik, bideo tutorial horren izaera adieraziko dugu, adibidez: teoria, ariketa ebatziak, zuen zalantzan inguruko erantzunak...

Easykasi-ren beste berezitasunetariko bat, foru zabaldu baten erabilera izango da. Foru honen bitartez, ikasleek beraien zalantzak edo beraien ustez falta diren bideoak zeintzuk diren helaraziko dizkigute. Zalantzen foru honen

Plantea
tus dudas

Obtén las
respuestas



bitartez, gure bezeroen feedbacka ikusiko dugu. Honek gure lana ondo burutzen ari garen ala ez esango digu, eta eginbeharreko aldaketak ikusten lagunduko digu. Gainera, pertsona bat jarriko digu foru honen arduradun bezala. Bere betebeharra foruko zalantza sinpleak argitzea eta bertako iruzkinak kudeatzea izango da.

Aplikazioaren beste atal batean, ariketa lagungarriak eta erreparorako ariketak aurkituko dituzte bezeroek. Ariketa hauek teoriako bideoetan ikasitakoa martxan jartzea dute helburu, baita ere, nota on baten bila ari den ikasleari ariketa interesgarri gehiago ematea. Ahal dugun eanean, ariketa honen soluzioak jarriko ditugu, baina ulergarria den bezalaxe, ariketa guztien soluzioak ematea zaila izan daiteke. Beste batzuetan, ariketak planteatzen lagunduko diegu bezeroei. Horretarako, ariketaren behean, jarduera hau burutzeko nondik hasi ipiniko diegu eta zer pausu jarraitu. Horrela, ikasleei bultzada bat emango diegu.

Prezio aldetik gure enpresaren kudeaketa besteenganako desberdina izango da. Easykasin parte hartzeko bi modu daude. Lehenengoa hilero ordainketa bat egitea izango da, 19,99 eurokoa. Horretarako, izena emateko orduan zure bankuko zenbakia eman beharko da, eta aplikazioa erabiltzen duzun eanean, hilero 19,99

euro ordaindu beharko dituzu. Gaizki-ulerturik egon ez daiten, kargu pasatu baino egon batzuk arinago mezu bat helduko zaizu zure posta helbidera(hau ere izen ematean jarri beharko duzu) ordainketa egiaztatzeko.



Easykasin parte hartzeko beste modu bat, hilero bideo tutorial edo ariketa ebatzi batzuk txertatzea da. Honela, ez duzu 19,99 euro ordaindu beharko, baizik eta 9,99. Baina lehenik eta behin, ariketa edo bideo

tutorial hori ikusiko dugu eta gure taldeak baloratuko du ea lagungarria izan daitekeen beste ikasleentzako ala ez. Ezezko kasuan, ordainketa normala, hau da, 19,99 eurokoa burutuko beharko luke bezero horrek.